



# Suak bizirik dirau

Etxegina taldeak, 100 urte

# Elgoibar Ikastola

biharko herria eraikitzen



Aurrematrikulazioa: otsailaren 3tik 14ra  
Ate irekiak: otsailaren 3an, 18:00etan  
[elgoibar@elgoibarikastola.eus](mailto:elgoibar@elgoibarikastola.eus) | 943 744 441



Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio, Saioa Rodriguez **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)



[x.com/barreneus](https://x.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)



[youtube.com/@Elgoibarrennet](https://youtube.com/@Elgoibarrennet)



[mastodon.us/@barren@tkm.eus](https://mastodon.us/@barren@tkm.eus)

Ane Astiazaran

Itzultzailea

## Irakurketaz



***"Irakurzalea naiz, eta bihotzez poztuko naiz irakurketa hegemonia bihurtzen bada"***

Astero gomendatzen ditut liburuak, gomendio batzuk eskatu egin dizkidatelako, beste asko eskatu ere egin gabe botatzen ditudalako. Gustatzen zait gomendatzea, liburua komentatzea, horren harira beste gomendio bat jasotzea... Goi mailako ikasketak pribilegio, gustatzen zait literatura kolektibo bihurtzeko nahia.

Duela astebete eskas atera zituen espainiar estatuko Kultura Ministerioak 2024ko irakurketa ohiturei buruzko datuak. Barometroaren arabera, estatuko populazioaren %65,5ek bere denbora librean irakurri egiten du, eta ehuneko hori are altuagoa da 14 eta 24 urte arteko gazteen artean: %75,3. Azken datu hori, batez ere, edozeren (guztiaren?) errudun gazteak direla (garela?) diozuenoi.

Deskonfiantzaz irakurri ditut datuok. Ez nuke irakurketaren polizia izan nahi (ezta beste edozein polizia mota ere), baina esango nuke konparazioan sarriago entzun dudala "gehiago irakurri beharko nuke" esaldia liburu bat eskuan dabilen jendea ikusi baino. Badirudi identifikatuta dugula irakurtzeko "beharra", baina nondik dator behar hori? Zergatik jartzen dugu irakurtzea gainontzeko entretenimendu kulturalen gainetik? Irakurtzeak kapital soziala dakar? Jantziagoak garela uste dugu ohiko irakurleak bagara? Kontua irakurtzea bada, eta irakurri irakurtzen badugu (hortxe datuak), zergatik dute irakurgai batzuek beste batzuk baino zilegitasun handiagoa? Zer da irakurri "behar" dena? Nobela, saiakera, liburuak oro har? Pentsak balio du? Edozein prentsak balio du? Honek balio du?

Ez zaituztet engainatu nahi, irakurzalea naiz, eta bihotzez poztuko naiz irakurketa hegemonia bihurtzen bada. Behingoz bada ere, horixe naiz ni, estatu espainoleko irakurle profil hegemonikoa: "hiri/herrigunean bizi den goi mailako ikasketadun emakume gaztea". Hori bai, nork aukera dezala bere literatura.

### **Nire lagunek ere igeri egin nahi dute**

Beste unibertso bat ezagutu dut, nirearen oso desberdina. Eta, onena, itsasoa ezagutu dut! Amonak askotan esaten zidan ederra zela, urez betetako bidoi erraldoi bat modukoa zela...Olatuekin jolastea gehiegizkoa izan da. Badakit gure herriak ere baduela itsasoa, baina nik ez dut ikusi, ez naizelako nire herrian bizi.

Ez dut gezurrik esango. Nire familiarekin asko akordatzen nintzen hor nengoela, lehenengo egunak oso arraroak izan ziren, eta negar pixka bat ere egiten nuen errezatzera joaten nintzenean. Amarekin hitz egiteko mobila eskatzen nien, hasieran ia egunero, edo argazki bat bidaltzen genien egiten ari ginena erakusteko... Badakizue zer? Gure anaia zaharrenak Asturiasko herri batean pasatu zituen uda batzuk txikia zenean, eta lehenengo aldietan ezin izan zuen etxekoekin berba egin, bideodeirik ere ez... orduan argindarrak ere ez genuen. Negar asko egin zuela badakit, nahiz eta berak ez aitortu.

Nik ere aitortu egin nahi dizuet zergatik idazten dudan hau: nire lagunek ere uda hor pasatu nahi dutelako, eta zuei esateko eskatu didatelako. Euskal Herriko udalekuetara joan nahi dute. Badakite hemendik gutxira Mendebaldeko Saharan libre biziko garela eta gure itsasoan bainatuko garela, baina bitartean zuen itsasoan bainatzea gustatuko litzaieke. Nire gelakoek 10 urte dituzte, eta igerilekuak ere gustatuko zaizkie. Badakizue zer? Gure amak Italiako urak ezagutu zituen txikitari; eta nik Kantauri itsasoa eta Mediterraneo.

Nire udaldia kontatu nien familiakoei eta lagun guztiei. Eraikin altuak dituen herri batean egon naizela, belarrezko futbol zelai erraldoi bat dagoela han, igerian ikasi dudala... Eta flipatu egin dute. Eta eurek ere igerian egiten ikasi nahi dute.

Gainera, euskara pixka bat ikasi dudala esan diet. Euskal Herria tokatu zaidala niri, ez dela Espainiaren berdina. Behin, ikurrina eraman nuen eskolara gelakoei erakusteko, eta irakasleak segituan ezagutu zuen. Berak ere badaki herri bat zaretela. Eta zuen kultura eta ohiturak dituzuela. Geuk ere betiko ohiturekin jarraitzen dugu, Aljeriak utzitako lurretan bizi garen arren. Badakizue zer? Nire arrebak esaten du benetako gure herrialdean bizi diren sahararrek ezin dutela gure bandera erakutsi ere egin. Ez dut ulertzen zergatik...

Bueno, kontua da nire lagunak horra joan ahal izateko familiak behar direla, eta hori eskatzeko

ere idazten dut. Nire horko familiak esan dit ahal duena egingo duela pertsona gehiago anima daitezten: kontatuko diotela jende askori zein bereziak izan diren elkarrekin igarotako bi hilabeteak, aberasgarria izan dela benetan eta idatzi hau zabalduko dutela.

Badakit zuen elkartasun keinuak ez duela gure herriarekin dagoen arazoa konponduko, auzia politikoa delako, baina leiho bat zabalduko diogu esperantzari; eta nire lagunek itsasoa ezagutuko dute. Agian, kontatzen badute kanpamenduetan uztailan eta abuztuan 50°C ere egiten dituela, baten batzuk animatuko dira. Inshala.

### **Yunes eta bere Euskal Herriko familia**

#### **Beñat maitea**

Deseroso sentitzen zinen bizitza honetatik alde egitea erabaki duzu, bidai berri luze bati hasiera emanaz. Askatasunean bizi izan zara eta, bizi bezala, aske joan zara, aurkitu ezin zenuen lasaitasunaren bila, gau beltzetik ihesi.

Oraingo negarrak irribarre bihurtuko zaizkigu gure oroitzapenetan jolasean hasten zarenean. Zeren horixe izan zara, etengabeko irribarre bat, gure umorea xamurtzen zekien irribarre bat, ingurukoei argia ematen zien irribarre bat.

Egunero erakutsi diguzu lehengusu, iloba, anaia eta seme maitagarria zinela, baina zinen bezain maitatua izatea ez dago edonoren esku. Badakigu zure azken agur hunkigarrian zirrikitu batetik begira egon bazina, berriro ere zure azken irribarre goxo eta sentitua izango zenuela aurpegiaren marrastua, jasotako maitasun adierazpenei keinua egiten zien irribarre.

Egoera lazgarria tokatu zaigu bizitzea, baina iluntasun honetan argia eman diguten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, zure baimenarekin, jakina: azken agurra ematera etorri ziren guztiei, etorri ezin izan zirenei, lankideei, musika munduko kideei, eta batik bat, zure eta zure anaia Gotzonen lagunei, zurekin zuten hurbiltasuna gurekin partekatzeagatik.

Ohorea izan da gure bizitzaren zati garrantzitsu hau zurekin partekatzea. Gudan zaude eta izango zara betirako. Ez zaitugu inoiz ahaztuko, ez zaitugu ahaztu nahi, eta beti izango dugu zure irribarre polit hori gidari gure bihotz hautsietan.

Egun handira arte, Beñat.

**Zure familia**

Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)



943 744 112



688 655 658



### **Idotorbeko berdegunea zikinkeriaz beteta egoten da:**

"Elgoibarren daukagun aire libreko gunerik ederrenetakoena da Idotorbekoa, ederrena ez bada, eta lastima da egoera honetan ikusi beharra. Zikinkeriaz beteta egoten da asteburuetan. Agian garbitzaile gehiago kontratatu beharko dira, baina argi dagoena da jendeak ez daukala inongo errespeturik. Herriarren kontzientzian eragin beharra dago, eta gai honen aurrean hausnartu behar dugu. Tamalez, horrelako egoerak normalizatu egin ditugu eta inork ez du ezer egiten".



### **Merkantzia trenak izugarri kutsatzen du:**

"Elgoibarko tren geltokian merkantzia trena dirudien tren bat egoten da geldirik martxan. Sekulako kea botatzen du, eta ingurune horretan ezin izaten da arnasarik hartu ere. Kutsadura handia sortzen duela dirudi eta horrelako egoerak saihestu daitezkeela iruditzen zait".



### **Herri honetan aparkatzea ezinezko misioa bilakatu da:**

"Badakit autoak asko ugaritu direla, eta etxe askotan bi auto ditugula gehienok. Badakit herri askotan dagoela aparkatzeko arazoa, baina Elgoibarren bestekoa ez dakit beste inon egongo ote den. Herrigunean TAO sistema dago leku askotan. Badakit autoen mugimendua sustatu nahi dela, baina horrek ere baditu eragozpenak. Herrigunean ezin bada aparkatu, auzoetara igotzen da jendea aparkatzera, eta auzoetako bizilagunok ez daukagu aparkatzeko lekurik. Beraz, TAO sistema honek nori egiten dio mesede? Herrigunean bizi denak ezin du etxetik gertu aparkatu, asko jota ordu eta erdiz utzi dezakeelako autoa, eta auzoetakoak ere kaltetuta irteten dira, herriguneko bizilagunak auzoetara igotzen direlako.



Uste dut Udalak hausnartu beharko lukeela, TAO sistemak norbaitentzat onurarik ba ote duen. Ordu eta erdiko aparkatze tarte hori erosketaren bat egiteko erabili daitekeela pentsatu dezaket eta agian merkatarientzako ondo etorriko da. Ez dakit, baina, egiten duen kalteak konpentsatzen duen onura hori".

## Adimen kognitiboa lantzeko tailerra eskainiko du Mendaroko Udalak

**B**urulogy teknologia erabilia adimen kognitiboa lantzeko aukera eman nahi die Mendaroko Udalak inolako nahasmendurik ez duten herritarrei. Gaitasun mentalak (memoria, kalkulua eta buru-bizkortasuna) lantzeko eta hobetzeko diseinatutako aplikazioa da Burulogy, eta aplikazio hori erabiliko dute tailerrean. Saioak asterokoak izango dira eta hilean 10 euro ordaindu beharko da izena ematearen truke. Izena emateko azken eguna martxoaren 8a izango dela jakinarazi dute Udaletik eta taldea sortutakoan hasiko dituztela saioak. Programan parte hartzea doan da, eta udaletxera joanda eman behar da izena.

*Bizi-bizi* programa osatzera dator Burulogy, Udalaren esanetan. "Programa honek espazio sozializatzailea, errehabilitatzailea eta aktiboa eskaintzen die hauskortasun, kalteberatasun, barkadade egoeran edo mendetasun egoeran egon



daitezkeen mendarotarrei". Batetik, beraz, pertsonen autonomia indartuta, mendekotasun egoerak saihestu nahi dituzte ahal den neurrian, eta bestetik, familia zaintzaileei lagundu. Herriko adinekoen bizi-kalitatea sustatu nahi dute, zahartzate aktiboa eta osagarria sustatuta, eta modu horretan, euren bizi-proiektua ahal den errazen garatu ahal izateko laguntza eman adinekoei.

### Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa emango dute Lilan, Udalak antolatuta

Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa antolatuko du Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailak. Saioa Baenak, Arrasateko Abian Fisioterapia Zentroko fisioterapeutak, emango du, Lila Emakumeen Etxean. Euskaraz izango da saioa, baina Udaletik zehaztu dute euskaraz hitz egin ez arren ulertzeko gai denak ez duela inolako arazorik izango saioak jarraitzeko.

Guztira hamar saio izango dira, doan, ondorengo egunetan, eta 16:30etik 18:00ak arteko ordutegian: otsailaren 11n, 18an eta 25ean; martxoaren 4an, 11n, 18an eta 25ean, eta apirilaren 1ean, 8an eta 15ean. Ikastaroan parte hartzeko, hori bai, izena eman beharko da, [www.labur.eus/LILA2025](http://www.labur.eus/LILA2025) webgunean sartuta. Otsailaren 7a izango da izena emateko azken eguna, eta Elgoibarren errolatutakoek izango dute lehentasuna. Ikastaroa martxan jartzeko gutxienez zazpi laguneko taldea osatu behar dela zehaztu dute antolatzaileek.

### Zuhaitz landaketa antolatu du Baso Biziak taldeak otsailaren 8rako

Elgoibarko Baso Biziak taldeak zuhaitz landaketa egingo du otsailaren 8an, eta gaur da izena emateko azken eguna. Interesatuak [info@elgoibarkobasobiziak.org](mailto:info@elgoibarkobasobiziak.org) helbidera mezua bidalita, izen-abizenak, adina eta herria zehaztuz, eta gaien 'Zuhaitz landaketa' idatzita. Mintxetan elkartuko dira 09:00etan, eta autoz joango dira Muzkiritzu mendilerroko magal batera. Mendiko botak eta arropa erosoak eramateko gomendioa egin dute, eta baita ura eta jateko zerbait ere. Lan tresnak eta eskularruak beraiek jarriko dituzte.

Iaz sei landaketa saio antolatu zituen Elgoibarko Baso Biziak elkarteak, denak Muzkiritzu mendilerroan, Karakateko Landa Parkearen barruan lurjabeek laga dizkieten lurretan. Horietan, guztira, 2.935 zuhaixka autoktono landatu zituzten, bazkideen eta bolondresenen laguntzarekin. 2022ko ekainean elkartea sortu zutenetik bertoko espezieetako 5.110 zuhaixka landatuak dituztela jakinarazi dute.

## Elkarrekin ospatuko dute IMHk eta Mekak gaur San Joan Bosko eguna

**E**lgoibarko Lanbide Heziketak 125 urte bete ditu aurten, eta Lanbide Heziketaren iragana, oraina eta etorkizuna irudikatzen hainbat ekintza dituzte aurreikusita. Oraina ospatzeko, egun aproposa iruditu zaie gaurkoa, San Joan Bosko eguna, eta iragarri dute elkarrekin ospatuko dutela gaur zaindariaren eguna IMH eta Mekakoek. 125 LH Elgoibar ginkana egingo dute 09:00etatik 11:00ak bitartean. Taldeka antolatuta, herrian zehar ibiliko dira bi ikastetxeetako ikasleak, eta Elgoibarko Lanbide Heziketan eta gure herriko makina erremintarentzat giltzarri izan diren hamahiru puntu topatu beharko dituzte. Ginkana hori propio sortu dute egun honetarako, Elgoibarko Makina Erremintaren Historiazaleak taldeko Pedro Andonegi eta Anton Bergaren laguntzarekin, eta puntu horietako bakoitzean ikasleek informazioa jasoko dute, baliagarri izango zaiena bukaeran erantzun beharko duten gal-



detegia osatzeko. Ginkanaz gain, 125 LH Elgoibar inguruko argazki lehiaketa ere egingo dute, eta probak eta jolasak ere bai Maalako parkean, 11:00ak bitartean. Ondoren, eta 13:00ak arte, futbito txapelketa jokatu dute IMH Kiroldegian eta gero, IMHko kafetegi-portxean, mokadua izango dute goizeko probetako sarien zozketa egin bitartean.

### Erreleboa izan da Debabarreneko odol emaien elkarteko zuzendaritzan

Debabarreneko eta Debagoienako odol-emaielen elkarteetako ordezkariak urteko batzarra egin zuten zapatuan, Elgoibarko Jubilatuen Biltokian. Batzarrean, askotariko gaiez aritu ziren hizketan eta zuzendari berria izango zutena ere aurkeztu zuten: Alaitz Zubiaurre debarra. Zubiaurrek bere ama ordezkatzeko du karguan, Arantza Iriondo.

Iazko datuak ere eman zituzten eta azaldu zuten, iaz, odol-emateak %4 hazi zirela Gipuzkoan, baina hala ere, herritarren kontzientzietan eragiten jarraituko dutela zehaztu zuten, odol premia beti delako handia. Bihotzez eskertu zieten odol-emaleei bizia emateko egiten duten ahalegina eta gainerako herritarrak animatu zituzten gauza bera egitera. Azpimarratu zuten inoiz baino errazagoa dela orain odola ematea, *gotatanta.eus* webguneari esker erraz jakin daitekeelako non eta noiz eman daitekeen odola. 18 eta 65 urte bitarteko herritar osasuntsuek eman dezakete odola, beti ere 50 kilogramo baino gehiago pisatzen badute eta



egunean bertan erizainaren oniritzia jasotzen badute ohiko probak egin ostean.

### 30.000 onuradun

Iaz, 46.844 lagunek eman zuten odola Osa-kidetzak jarritako gune finko edo ibiltariren batean, eta, denek batera, 79.032 odol emate egin zituzten. Zehaztu dutenez, gehienak ohiko odol-emaleak izan ziren, edo jarraikortasun batekin ematen dutenak, baina 6.567 emale berri izan zirela azpimarratu zuten.

## 'Batera Elgoibarren', euskararen aldeko sarea zabaltzeko eta erabileran jauzia emateko ekimena



**E**lgoibarko Udalak eta Elgoibarko Izarrak *Batera Elgoibarren* dinamika jarri dute martxan Taupa Euskaltzaleen Mugimenduaren dinamizazio eta gidaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin. Taupak 2023an jarri zuen martxan *Batera jauzi* jendarte laborategia, tokian toki euskararen aldeko sarea zabaldu, komunitate-gintzan sakondu, akordio berriak adostu eta erabileran jauzi bat emateko oinarriak ezartzeko, eta dinamika horretara batu da orain Elgoibar. Prozesua urtarrean hasi dute eta ekainean dute bukatzekoa.

Bost lagunez osatutako talde motorra gidari dutela, Elgoibarko sektore ezberdinetako hemezortzi pertsonak osatu dute Elkarrizketa Taldea. Pertsona horiek aukeratzeko orduan, "gizarteko lagin zabal eta anitz baten parte-hartzea" bilatu dutela esan dute. Adin, genero, jatorri, zaletasun, lanbide eta euskara ezagutza maila ezberdina

dute taldekoek, eta etxeko hizkuntza euskara edo/ eta beste hizkuntzaren bat izan duten ere hartu dute kontuan antolatzaileek haiek aukeratzeko. Elkarrizketa talde horrek bost lan-saio egingo ditu, eta, saio horietan aztertu eta erabakiko diren baldintzek ahalik eta onarpen sozial handiena izan dezaten, Elgoibarko sektore esanguratsuenekin lotura duten herritarrekin kontraste bilerak egingo dituzte. Hauek izango dira bost kontraste taldeak: hezkuntza eta helduen alfabetatzea, kulturgintza, kirola-aisia-gazteak, arlo sozioekonomikoa, eta, euskaraz ez dakiten herritarrena.

Ekainaren amaierarako, euskararen egoeraren diagnosi komunitario bat adostuko dute, bai eta erabilera handitzeko baldintzak eta epe luzerako gidalerroak zehaztu ere. Prozesuak hiru oinarri izango ditu: elkarrizketa, aniztasuna eta adostasuna.

### 26 saltoki batu dira 'Otsailak 11 erakusleihoak' ekimenera

Emakume Zientzialarien Nazioarteko Eguna da otsailaren 11, eta horren harira, *Otsailak 11 erakusleihoak* ekimena antolatu dute aurten ere Elgoibarko Udalak eta Elhuyarrek. 26 saltokik egin dute bat egitasmoarekin, eta hilaren 3tik 11ra irudikatuko dituzte emakume zientzialariak erakusleihoetan. Establezimendu bakoitzak zientzialari bati eskainiko dio erakusleihoa, eta emakume zientzialarien bizitzaren eta lanaren dibulgatzaile bihurtuko dira. Egur eta Ane arte tailerretako haurrek lagundu diete dendariei erakusleihoak apaintzen. Horrez gain, erakusleiho bakoitzean QR kode bat egongo da, eta horri

esker, ginkana batean parte hartzeko aukera egongo da. Hauek dira parte hartuko duten establezimenduak: Agurtzane ile-apandegia, Alire estetika, Aramburu bitxi denda, Astigarraga, Barrutia optika, Cristina Garcia Estetika, Darma denda-tailerra, Ecenarro, Eizaguirre okindegia, Farmazabal, Henko, Surya belardenda, Idama, Iriondo Kirolak, Karkizano, Maria Urizar ile-apandegia, MGS aseguruak, Olaia Martinez estetika, Leire ile-apandegia, Meraki ile-apandegia, La Bermeana arraindegia, Pitxintxu, Rotea elektrizitatea, Lagunak, Txillarre ekodenda eta Uzuri optika.



# Udalbatzarrak atzera bota du Iñigo Loiola EAJko zinegotzia kargugabetzeko EH Bilduren eskaera

**E**lgoibarko EH Bilduk Iñigo Loiola Garate EAJko zinegotzia Udaleko Lurralde Batzordeko arduradun eta Debemen Landa Garapen Elkarteko ordezkaritza karguetatik kentzeko mozioa aurkeztu zuen Udalean. Zortzi landa-bide asfaltatzeko eginiko lanetatik bi titulartasun pribatuko bideetan egin izana leporatu zioten Loiolari, eta zehaztu zuten Udaleko arduradun politikoen erantzukizuna dela diru publikoaren kudeaketa "garbia eta gardena" egitea. Gai honi buruzko azalpenak eskatu izan dituztela ere esan zuten, eta ziurtatu ez dutela erantzunik jaso.

Udal Gobernuak, bestalde, babes osoa erakutsi zion EAJko zinegotziari, eta kontramozioa aurkeztu zuen EH Bilduren dimisio eskaera "gehiegizkoa" zela iritzita. Prozesuak "berme legal guztiak" betetzen dituela ziurtatu zuten, bai eta EH Bilduren eskaera guztiak erantzun zituztela ere. Era berean, nabarmendu zuten Elgoibarko Udalaren helburua beti izan dela landa auzoetakoen bizi-kalitatea hobetzea eta lehen sektorea indartzea, eta eskertu zuten Iñigo Loiolak norabide horretan egindako lana.

Martitzenean egin zuten Udal Batzarraren Osoko Bilkura, eta EH Bilduren dimisio eskaerak ez zuen aurrera egin, bai ordea, Udal Gobernuak aurkeztutako kontramozioak. Udaletik adierazi zuten EH Bilduren kritikak aintzat hartu dituztela, baina nabarmendu zuten gardena eta legezkoa izan dela prozesu guztia. Hortaz, Udalbatzarrak erabaki zuen Iñigo Loiola Garatek bere lanean jarraitzea eta Legealdi planeko ekimenak gauzatzea.

EH Bilduk plenoaz egin duen balorazioan sa-



latu du "arazoaren muina" zein zen azaldu ordez udal-politikan lehen sektoreak duen garrantzia azpimarratzera mugatu zela Maialen Gurrutxaga alkatea osoko bilkuran eta ez zuela bide horiek publiko edo pribatu diren argitzeko bezperan udal gobernuak berak zabaldu zuen dokumentua erabili euren defentsan. EH Bilduren ustez, dokumentu horrek indartu egiten du bide horiek bide publiko gisa jasota ez dauden tesia.

Prozeduraren gainetik udal gobernuak ekintza lehenesten duen aipamenari erantzunez, bestalde, EHBildutik azpimarratu dute burokrrazia dela arduradun instituzionalen erabakiak zuzen hartzen direla ziurtatzeko eta herritarrei berme emateko bidea, eta ondorioz, gastu publikoa egin aurretik bete behar dela, eta ez alderantziz. "Kudeaketaren eraginkortasunaren bilaketan oinarritutako baieztapen engainagarri horrek arbitrariotasunean eta kontrolik ezean oinarritutako kudeaketa defendatzen du, amigismoan oinarritutako kudeaketa", gehitu dute.

## 75 aparkaleku egingo dituzte Errezabal adinekoen zentroaren azpian

Elgoibarko Udalak eta Foru Aldundiak aurrepausoak eman dituzte Errezabal adinekoentzako zentroaren proiektuan. 2022an sinatu zuten lankidetzaz hitzarmena, eta orduko hartan adostutako portzentajeen arabera banatuko dira zentroaren eta aparkalekuaren espazioak. Hasieran aurreikusitako ehunekoak honako hauek ziren: gizarte zerbitzuetarako %80,75 eta aparkalekurako %19,25 (4.250 m<sup>2</sup>-ko partzelan).

Orain eguneraketa batzuk egin dizkiote hasierako proiektuari, eta azken portzentajeak hauek dira: gizarte zerbitzuetarako %83,61 eta aparkalekurako %16,39. Hori kontuan izanik, 75 plaza sortuko dituzte egoitzaren beheko aldean egingo dituzten aparkalekuetan. Oraindik ez dute erabaki aparkaleku horien izaera, baina "herritarren onurarako izango den erabilera" aztertzen ari direla zehaztu dute.

# Mendea kantuan eta eskean

✍ Ainhoa Andonegi / 🎻 Etxegina Taldea

**1925ean irten zen kalera estreinakoz Santa Eskeko Etxegina Taldea, Santa Ageda bezpera egunez. German Uriguen Ormaetxea 'Etxegina' izan zen taldearen sortzaile eta sustatzaile nagusia, eta osasunak lagundu zion bitartean eutsi zion tradizioari. Haren seme Ramonek jarraitu zuen gero taldearen arduran, eta Jon Peli Uriguen bilobak dihardu gaur egun taldearen buru. Mendeurreneko ospakizunen barruan kalejira berezia egingo dute bihar. Erakusketak ere egongo da, eta taldearen 100 urteak laburbiltzen dituen liburua ere kaleratu dute.**

**E**rmuko Guencallen jaio zen German Uriguen Ormaetxea 1898ko urriaren 11n. Eibartar armagina zuen aita, Damaso Uriguen, eta ermuarra ama, Saturnina Ormaetxea. Aittitarengandik zetorkion familiari *Etxegina* gaitzizena, etxegintzan aritzen zelako, eta hala ezagutzen dira gaur egun ere uriguentarrak.

Bizitzak Elgoibarrera eraman zuen gero. 1923an hasi zen lanean Elgoibarko Gabilondo lantegian eta, gero, Sigman. 1925ean ezkondu zen Valeriana Soduperekin eta hiru seme-alaba izan zituzten: Lourdes, Garbiñe eta Ramon.

Kanturako eta bertsoarako zaletasuna gazte-gaztetatik zekarren Germanek. Ermuan eta Eibarren 1915erako hasia zen Santa Agedako koroak sortzen eta 17 urteko mutikoa zela abestu zituen estreinako aldiz berak sortutako Salbearen zortzi ahapaldi. 19 urterekin egin zuen bere lehen agerraldia bertsolari gisa Ermuko Sallabenteko jaietan. Bat-bateko bertsolaritzan ere aritu zen 1931tik 1933ra, eta plazetan abesteaz gain, txapelketetan ere hartu zuen parte: esaterako, 1960an Bizkaiko Eskualdeetako Bertsolari Txapelketan Durangaldeko bigarrena geratu zen, laugarrena 1962an eta bosgarren 1964an. Bizkai-



*German Uriguen (Ermua, 1898 - Elgoibar, 1986)*

ko Bertsolari Txapelketan, bestalde, hirugarren egin zuen 1960an. 1981etik aurrera bere ome-nezko Etxegina Bertso-paper Lehiaketa antolatu zuen Elgoibarko Izarrak, gerora idazlan lehiaketa bihurtu zena.

## **Erronka modura hasi zenak 100 urte**

Plazagizona zen, kantuzalea eta kultura zuen gustuko. Umetatik zeukan kanturako eta bertsoarako zaletasuna, eta 1925ean santa eskeko koroa sortu zuen Elgoibarren. Erronka modura hasi zen guztia urtebete lehenago, Barrutia jatetxean. Hango ugazabak tentatu zuen koplak kantuan has-teko, eta birritan pentsatu gabe hasi zen kantuan German. Urte hartako kantu-jiraren ordaina ar-dotan jaso zuten Uriguen eta haren lagunek. Hu-



*1963an Bolatokian ateratako argazkia.*

rrengo urterako sortu zuen kantuan eta eskean irteteko taldea, eta familiaren ezizenez bataiatu zuten taldea: Etxegina. Batutako diruarekin merienda eta parrandak egiten zituzten hasierako urteetan, baina orain, Caritasi ematen diote dirua.

1980. urtera arte bera izan zen taldeko koplaria. Osasun arazoengatik laga zion koplak kantatzeari, eta 1981ean, Kepa Urainek hartu zion erreleboa. Hasiera batean Uriguen sendatu artekoa zuen egitekoa, baina 2018ra arte jarraitu zuen Urainek kantuan. Gaur egun, Ignacio Mugertza eta Iñigo Legorburuk betetzen dute funtzio hori.

Omenaldi ugari jaso zituen Uriguenek bere ibilbideagatik, eta azken aitortza 2000. urtean egin zion Elgoibarko Udalak Santa Eskeko Etxegiña taldearen omenez eliza ondoan jarritako harritzko eskulturarekin, besteak beste.

Kuriositate bezala Parisen bada rock talde bat Etxegina izeneko, Germanen lehengusu baten ondorengo batek sortua eta izen hori darama.

1986an hil zen German, eta haren seme Ramonek hartu zion erreleboa santa eskeko taldearen arduran. 1998ra arte eutsi zion Ramonek aitak hasitako bideari, eta haren heriotzaren ostean, 1998an, Jon Peli Uriguenek hartu zuen taldearen ardura.

### **Biharkoa, berezia**

100. urteurreneko santa eskea egingo du bihar Etxegina taldeak. Ohi bezala 09:00etan batuko

dira bolatokian, eta bi taldetan banatuta koplaturako dituzte herriko kale eta auzoak. Urazandiko La Union elkartearen egingo dute hamaiketakoa, eta handik jaitsiko dira berriro herrigunera. Biharkoa berezia izango da. Ohi baino kalejira laburragoa egingo dute, 13:30ean ekitaldi instituzionala izango dutelako udaletxean. Kopla batzuk kantatuko dituzte pleno aretoan, eta omenaldi eta aitortzak egiteko baliatuko dute ekitaldia.

Horren ostean, Errosario kalera joango dira denak batera, ama birjinari salbea kantatzera. Salbea bera German Uriguen Etxeginak sortutako doinua da. Ezaguna da eskualde osoan, baina bereziki Elgoibarren dauka indarra, hileta-elizkizun guztietan kantatzen delako. 1915. urtean sortu zuen kanta liturgiko hau Etxeginak, artean Ermuan bizi zela. Hileta-elizkizunetan Errosarioa errezatzen zuten eta gero salbea kantatzeko ohitura zegoen. Etxeginari eskatu zioten doinu berria sortzeko eta halaxe egin zuen. Tradizio bilakatu da santa eskeko Etxegina taldean eta han bukatzen dute beti kalejira. Segidan, Baltasar elkartera joango dira bazkaltzera.



*German Uriguen 'Etxegina', seme Ramon eta biloba Jon Peli eta Sabinekin.*



*Ezkerrean, German Uriguen. Eskuinean, 1980an German Urigueni egindako omenaldiko irudia. Behean, ezkerrean, Kepa Urain koplaria, eta eskuinean, Ainhoa Zapata, Ixidor Solupe eta Anabel Arrizabalaga.*



## SANTA AGEDARI KANTATZEKO OHITURA



## ERAKUSKETA ETA LIBURUA

Mendeurrena ospatzeko eginkizunen barruan erakusketa inauguratuko dute gaur. Argazki erakusketa izango da hein batean, baina bideoren bat ere jarri dute ikusgai. Horrez gain, Etxegina taldean historikoak izan diren hainbat elementu ere erakutsiko dituzte, besteak beste, German Uriguen berak erabiltzen zuen makila, alkondararen bat, zapiak, Katalotzaren soinua... Otsailaren 9ra arte egongo da ikusgai: Astean zehar 18:30etik 20:30era; bihar 12:00etatik 14:30era eta 18:30etik 20:30era, eta otsailaren 2an, 8an eta 9an, 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era.

Liburua ere erakusketan bertan jarriko dute salgai. Jon Peli Uriguen eta Iñaki San Martin *Soarte* izan dira liburua egin dutenak, eta 100 urte asko badira ere, bertan saiatu dira taldearen historia laburbiltzen. Informazioan euskara da nagusi, baina atal batzuk gaztelaniaz ere idatzi dituzte, eta prentsan argitaratutako elkarrizketa batzuk ere gaztelaniaz eginda daudenez, jatorrizkoa errespetatu dute. Etxegina taldearen historia-ekin batera, taldearen bueltan ibili den jendeari aitortza egiteko eta eskerrak emateko baliatu dute liburua, eta pertsonak dira protagonista nagusiak, bai egungoak eta baita lehengoak ere. 200 ale atera dituzte eta 25 euroan jarriko dute salgai.




*Iñaki San Martin 'Soarte' eta Jon Peli Uriguen mendeurreneko liburuarekin.*

Webgunea ere sortu dute, [etxeginataldea.eus](http://etxeginataldea.eus) helbidean, eta han bilduko dute mendeurrenari lotutako informazio guztia.



**B**atzuek diote marinelek ekarri zutela Santa Ageda siziliarra goraiatzeko ohitura Euskal Herrira, baina badira jai hau zaharragoa dela esaten dutenak ere. Neguko solstizioari lotutako jaiak ere izan daiteke, lurra kolpeka esnatzeko sortua. Dena dela, gaur gaurkoz neguko jaiak da Santa Ageda, eta otsailaren 5ean ospatzen da, hain zuzen ere Ageda martiria hil zuten egunean. Historiak dioenez, siliziarra zen 230. urtean jaioa. Quinciano izeneko gobernadore paganoa Agaterekin maitemindu zen, baina ezin izan zuen haren maitasuna lortu. Kristaua zen Ageda, eta ez zuen harekin ezkontzeko proposamena onartu. Kartzelaratu egin zuten Ageda, baina hala ere iritziz aldatzen ez zuenez, borraroen esku laga zuten, tortura zezaten. Bularrak moztu

zizkieten, eta 21 urterekin hil zen, 251. urteko otsailaren 5ean. Egun horren bezperan egiten dira Euskal Herrian haren omenezko eskaera kalejirak. Euskal Herrian tradizio handiko jaiak da, bereziki Bizkai aldean. Gipuzkoan Debabarrenean eta Debagoiengan ere oso errotuta dago santa eskea. Antxon Agirre Sorondo etnografoak *Negua ospatuz* liburuan azaltzen duenez, lurra esnatzea du helburu jai honek, makilarekin kolpeak emanez. Haren esanetan neguan ohikoa zen eskean ibiltzea, izan ere, udazkeneko uztan bildutako fruituak eta txerri hil berria gordetzen zuten baserrietan, eta garai ona izaten zen eskean joateko. Mutil gazteak edo askotan soldaduska egin behar zutenak irteten ziren oles egitera baserri baserri.



## JON PELI URIGUEN Etxegina taldeko arduraduna

German Uriguen 'Etxeginaren' biloba da Jon Peli Uriguen, eta bera da gaur egun Santa Eskeko Etxegina taldearen arduraduna. Aittittak ekin zion bideari, aitak hartu zuen gero lema eta berak eutsi dio kantuan eta eskean ibiltzeko tradizioari gaur arte. Aurrera begira itxaropentsu dago. Taldean inplikaturako jendea dagoela uste du eta Etxegina taldeak etorkizun oparoa duela.

✍ Ainhoa Andonegi 🗣 Asier Orbea / Etxegiña Taldea

*“Aittittaren eta aitaren bideari segida eman eta 100. urteurrenera iristea ohorea izan da”*

### **Santa Eskeko Etxegina taldeak 100 urte bete ditu. Berezia izango da aurtengoa, ala?**

Bai, dudarik gabe. Berezia izaten ari da dagoeneko. Iazko ekainean hasi ginen pentsatzen zer egingo genuen mendeurrena ospatzeko, eta batetik, liburu bat kaleratzea pentsatu genuen. Nire ideia izan zen hasiera batean, baina berehala batu zen proiektura Iñaki San Martin *Soarte*, eta bion artean osatu dugu. Nik testuen ardura izan dut bereziki, eta bera arduratu da irudiekien eta diseinuarekin. Informazio pila bat batu dugu, eta saiatu naiz modu arin batean idazten, ez izateko oso astuna. Ibilbide polita izan da niretzat

liburua egitea. Gauza asko banekizkien, baina informazio berria ere jaso dut, eta bitxikeria batzuk ere bai. Lore Laspiurrek, esaterako, Elgoibarko Izarrako Imanol Larrañagari cassette bat eman zion, santa ageda jartzen zuelako. Ez zekien zer egongo zen zintan grabatuta, baina pentsatu zuen interesgarria izan zitekeela. Cassettea entzun ahal izateko aparatua erosi behar izan nuen, pentsa! Juan Mari Iriondok 1974an Euskadi Irratian gure aittittari eginiko elkarrizketa bat zegoen. Soinua ez da oso ona, baina entzuteko moduan dago eta oso interesgarria iruditu zitzaidan. Juan Mari berarekin ere harremanetan jarri

naiz, eta gonbidatu dut urteurreneko ekitaldira. Ea etortzerik daukan.

Liburuaz gain, erakusketa bat ere antolatu dugu, eta gaur arratsaldean zabalduko dugu. Hilaren 9ra arte egongo da ikusgai Kultur Etxean. Gehien bat argazkiak jarri ditugu ikusgai, baina egongo dira santa eskeko elementu historiko bereziak ere: aittittak erabiltzen zuen makila, alkan-doraren bat, Katalotzaren soinua... Hau guztia jasotzeko webgune bat sortu dut (*etxeginataldea.eus*) eta han bilduko dugu informazio guztia. Liburuan bertan dago webgunerako QR kodea.

### **Bihar irtengo da Etxegina taldea 100. aldiz kantuan eta eskean kalera, baina ez da ohikoa izango.**

1924an hasi ziren kantuan lehenengoz, baina urteren batzuetan huts egin izan dute, beraz taldeak mendea bete duen arren, ez da kalera irtengo diren ehungarren aldia izango. Gerra garaian, aittitta kartzelan egon zen 38 hilabetez, eta pare bat urtez kale egin zuen taldeak. Eta gu ere, pandemiaren ondorioz, bi urtetan ez ginen irten. Dena dela, bihar beti bezala 09:00etan irtengo gara eskera bi taldetan banatuta, baina ohikoa baino laburragoa izango da kalejira, 13:30ean udaletxean harrera ekitaldia egingo ditugelako. Omenaldi eta sorpresaren bat daukagu prestatuta. Errosario kalean amaituko dugu, salbea kantatuz, eta Baltasarren bazkalduko dugu.

### **Nola sortu zen Etxegina taldea?**

Ermukoa zen nire aittitta, eta Elgoibarrera etorri berria zen orduan. 1924an ezkondu zen Baleriana Soduperekin. Barrutia tabernan zegoela, Agustin Barrutia jabeak koplak kantuan hasteko erronka bota zion. Kantatzearen truke, ardoa eman zieten. Urtebete geroago kalean eta baserrietan kantatzen hasi ziren, eta dirua batzen zuten trukean. Hasierako urteetan beraientzako izaten zen bildutako dirua, baina 1928. urte inguruan beharra zutenentzako biltzen hasi ziren. Urtero erabakitzen zuten dirua nori eman, eta horretarako batzorde bat zuten. Nire aittitta, aita eta Santi Kortaberria biltzen ziren eta herriko parrokoari, alkateari eta pertsona esanguratsueni galdetzen zieten urte horretan nork behar zuen dirua herrian. Urte baten erabaki zuten kanpotik Elgoibarrera lanera etorritako gizon bati ematea. Hanka moztu zioten lan-istripu baten ondorioz, eta garai hartan ez zeudenez gaur egungo laguntzak, hari ematea erabaki zuten. Gizon hark eskertu zuen

diru hura, baina kopuru harekin hemen ezer gutxi egingo zuela pentsatuta, bere herrialdean taberna bat zabaltzea erabaki zuen. Extremadurakoa zela uste dut, eta dirua hartuta hara joan zen. Kritika handiak jaso zituen batzordeak, eta ordutik Caritas elkarteari ematen diogu dirua urtero.

### **Nola bizi izan duzu zuk santa eskea?**

Umetatik bizi izan dut nik santa eskea. Umetako argazki batzuetan neu baino makila handiagoarekin ageri naiz. Gaztetan egon nintzen urte batzuk kanpoan, ikasten, eta kale egin nuen santa eskean, baina gerora berriz ere batu nintzen taldera. 1998an aita hil zenean, nik hartu nuen taldearen ardura, baina beti egon da taldean oso jende inplikaturik. Jende eta elkarte askok kolaboratzen dute gurekin, eta saiatu gara horiek guztiak jasotzen liburuan. 100 urte asko dira, eta seguru norbait ahaztu zaigula, baina saiatu gara laguntzen dituzten guztiei eskerrak ematen.

### **Uriguren abizena santa eskeari oso lotuta dago Elgoibarren. Zer da zuretzat abizen hori izatea?**

Badauka pisua, egia esan. Sentitzen dut ardura bat, eta ez dut huts egin nahi, jende asko dabilelako gure bueltan, ilusio handiarekin. Baina ez nago bakarrik, bultzada handia ematen didate eta denon artean lortu dugu honaino iristea. Ardura da, baina poza ematen du. Ohore bat izan da aittittak eta aitak egindako bideari segida eman eta 100. urteurrenera iristea.

### **Etorkizunari begira, nola ikusten duzu taldea?**

Erreleboa izan zen aittittaren eta aitaren kezka nagusia. 80. urtean aittitta makal zegoen, eta hurrengo urtean Kepa Urain irten zen koplak kantuan. Printzipioz urte hartarako zen, baina 2018ra arte egon zen. Orain Ignacio Mugertza eta Iñigo Legorburu aritzen dira. Jende gaztea ere sartu dugu taldean, eta azken urteotan Ikastolako eta Herri Eskolako ikasleek ere hartzen dute parte. Herriak gainera oso ondo hartzen gaitu, jendea-ri gustatzen zaio santa eskea, eta uste taldeak etorkizun oparoa daukala. Ez dakit Uriguren abizenekoren bat izango den nire ondorengoa, baina hori gutxienezkoa da. Jende ona dago taldean, eta edonork hartu dezake ardura. Elgoibarren gainera Elgoibarko Izarrakoak ere ibiltzen dira baserri- baserri, eta orain Atxutxiamaiak familian ere egiten du santa eskea. Positiboa da hori tradizioari eusteko.

## ■ Bi PR edo Ibilbide Labur markatu dituzte Kilimon bailaran

**Kilimon Trail mendi lasterketaren ibilbidea Ibilbide Labur kategorian (PR) sartzeko lanak amaitzeaz dituzte Mendaron, ia bi urteko lanen ondotik. Kilimon Trail mendi lasterketaren antolatzaileen, Mendaroko Udalaren eta Gipuzkoako Mendizale Federazioaren artean ondu dute proiektua, lankidetzan, eta diseinu- eta seinaleztatze-lanak 14.995 euroko aurrekontua izan dute. Bideak garbitzeko eta txukunketa lanak egiteko berriz [mojetako eskaileretan maila batzuk konpondu behar dituzte], 4.878 euroko aurrekontua zuten, baina alkatetxek zehaztu du litekeena dela handitzea, haizete handiek eragindako kalteen ondorioz.**

✍ Ainara Argoitia

**K**ilimon Trail mendi lasterketa antolatzen duten Lizarpe Mendi Klubekoen eta Mendaroko Txirrindularitza Elkartekoen eskariz hasi zuten egitasmoa, joan zen legegintzaldian. Bi ibilbideak (luzea eta motza) urte osoan zehar edozeinek egiteko moduan jarri nahi zituzten Kilimon Trail lasterketaren antolatzaileek eta ibilbideen mantentze-lanak sistematizatu, eta horretarako, Mendizale Federazioarekin eta Udalarekin jarri ziren harremanetan, ibilbidea homologatzeko bidea egiteko. Eta harreman horretatik sortu da proiektu hau, arrazoi ezberdinak tarteko, uste baino gehiago luzatu dena baina astebeteren buruan bukatzea espero dutena. Marka gehienak jarrita daude eta ibilbideei buruzko argibide-taula aurki dute jartzekoa, Herriko Enparantzan, handik hasten baitira bi ibilbideak [Pantaila handia dagoen lekuan dute jartzekoa, hura lekuz aldatzea erabaki duelako Udalak bizilagunen eskariak aintzat hartuta]. Bi ibilbideen izenak, kartografia, distantzien profila, lurzoru moten eta desnibelen inguruko informazioa, erabilera arauak eta naturguneari buruzkoak, eta mendian segurtasunez ibiltzeko aholku nagusiak jaso dituzte taula horretan.

Funtsean Kilimon Trail mendi lasterketako ibilbideak dira markatu direnak, baina egokitzen



*Bi ibilbideen inguruko informazioa eta beste jakingarri batzuk biltzen dituen argibide-taula. Herriko Enparantzan dute jartzekoa.*

txiki batzuk eginda. "%95ean edo gehiagoan lasterketako bideak dira, baina egokitzen batzuk egin behar izan dira ibilbideak PR izendatzeko irizpideetara egokitzeko. PRak ahalik eta erabiltzaile gehienek egiteko modukoak izan behar dira, "eta ez eliteko kirolarientzat edo oso mendizale zaildu direnentzat bakarrik. "Kilimon Trail mendi lasterketaren ibilbidea oso exigentea da, desnibel handikoa leku batzuetan, eta egokitu beharra zegoen. Basurde-bideetatik igarotzen dira leku batzuetan eta horiek arindu behar ziren. Homologatzeko irizpideetan jasota dago, ahal dela, gainera, herri bideak erabili behar direla beti, bide publikoak, eta saiatu behar dela garai bateko komunikazio ibilbideak berreskuratzen, nahiz eta gaur egun inor igarotzeko moduan ez egon. Era



berean, PR-etan ibilbiderearen %20 baino gehiago ezin da asfaltatutako edo zementuzko bidetik joan eta saihestu behar da tontorretatik pasatzea ere".

Irizpide horiek kontuan hartuta balizatu eta markatu dituzte Gipuzkoako Mendizale Federazioko senderismo batzordeko teknikariek PR-GI-218 (Aranerrekako itzulia) eta PR-GI-217 (Garaluzeko itzulia) ibilbideak, eta Udalak bere egin du ibilbide horiek garbi mantentzeko konpromisoa. "Baldintza da hori. Urtero, Gipuzkoako ibilbide batzuen azterketa egiten dugu guk, eta bost urteren buruan ibilbide guztiak gainbegiratzen ditugu. Ikusiko bagenu Udalak ez duela betetzen konpromiso hori, ibilbideari homologazioa kenduko genioke eta bidezidorren erregistrotik kanpo geldituko liriteke bi ibilbideak. Kasu horretan, gainera, Udalak bere gain hartu beharko lituzke ibilbidean dauden markak eta azpiegiturak kentzeko gastuak ere", zehaztu du.

### Aranerrekako itzulia eta Garaluzeko itzulia

Marka zuriz eta horiz balizatu dituzte bi PRak, eta ibilbide arteko loturak txuri eta berdez, Senderismo Batzordeek duten araudiak ezartzen duen bezala. Aranerrekako itzulia (PR-GI-218 matrikuladuna) 21 kilometroko ibilbidea da, Kilimon Trail mendi lasterketa luzearen parekoa litzatekeena. Egokitzapen txiki batzuk egin behar izan dizkiote, eta ondorioz, desnibel apalxeagoa dauka, baina hala ere, ibilbideen zailtasun teknikoak eta fisikoak baloratzeko Espainiako Mendi Kirol eta Federazioaren MIDE sisteman lauko zailtasun maila dauka. Batez beste 8 ordu eta



erdian egiteko bidea dela zehaztu dute eta 1.440 metroko desnibel positiboa duela.

Garaluzeko Itzulia (PR-GI-217 matrikuladuna) laburragoa da, Kilimon Trail lasterketa motzaren ibilbidearen trazara sortutakoa. 10,2 kilometroko ibilbidea da, 770 metroko desnibela duena, eta lau ordu eta erdian egitekoa. MIDE sisteman, hiruko zailtasun-maila dauka lautik.

Apirilaren 5ean jokatu dute Mendaron aurten Kilimon Trail mendi lasterketa. Urtero bezala, bi ibilbide izango dira: motza eta luzea, eta entrenatu nahi duenak edo, besterik gabe, Kilimon bailara ezagutu nahi duenak aukera bikaina dauka orain. "Paraje zoragarrietatik igarotzen da lasterketa", nabarmendu du Elortzak. Lasterketarako izena emateko epea zabalik dute ([kronoak.com](http://kronoak.com)), eta lasterketa motzerako dortsalak amaituta daude dagoeneko. Luzerako 225 zeuden izena emanda martitzen goizean ■

# 'AMORANTE'

Musikaria

✍️ Ainara Argoitia / 🎤 Maitane Campos

**Azpeitiko Dinamoa sormen gunearen abaroan sortu dute ANTE proiektua Amorante eta Adriano Galante artistek eta gaur Mendaron emango dute, San Agustin kulturgunean, 22:00etan. Mesa7, Kultura Sustatuz taldeak antolatuta du kontzertua eta sarrerak salgai daude Uztargi tabernan, 15 euroan. Hala ere, eta amaituko ez balira behintzat, gauean San Agustingo sarreran bertan eskuratzeko aukera ere izango da.**

## Zerk eraman zaituzte zuek biok elkartzera?

Esan dezakegu bioi gustatzen zaigula besteak egiten duen musika eta hori izan dela detonazaila. Pertsonalki ez nuen Adriano ezagutzen, baina estimatzen dut haren lana eta lagunak ere orbita berekoak dauzkagunez, idatzi egin nion Dinamoa egonaldi bat egitea proposatuz. Los Sara Fontanekin egina neukan aurrez halako zerbait eta eman genituen gero kontzertu batzuk elkarrekin, eta banuen Adrianorekin gauza bera egiteko gogoia. Iazko urrian egin genuen egonaldi hura. Aukeratu genuen gero erreperatorio bat elkarlanean, eta ANTE izena eman genion proiektuari, Amorante eta Moranteren arteko hitz-jokoa eginez. Eta orain, izen horrenpean, kontzertu batzuk emango ditugu ekainera bitartean. Hasteko, atzo Donostian eman genuen estreinakoa, Tabakaleran, gaur Mendaron arituko gara, eta igandean, Azpeitian. Martxo bukaeran, berriz, Gasteizen izango gara, Montehermoson, eta kanpora irteteko asmoa ere badugu.

## Zertzuk ezaugarri ditu ANTEk?

Kontzertu formatoarekin goaz gaur Mendarora. Ez goaz bakoitza bere kantuak jotzera, baizik eta elkarrekin sortu dugun kantu sorta bat defendatzera. Proiektu askotan dabil Galante, baina musikalki eta performatikoki baditu ezaugarri batzuk nire musika ikuskerarekin ondo ezkontzen direnak. Eragin musika zabala dugu biok ere, baina batzen gaituen horretatik sortu genituen kantu batzuk. Kontzertuan egongo da herri musikatik dezente, egongo da esperimentaziotik eta inprobisaziotik, eta baita musika garaikidetik eta urbanotik ere. Esan dezagun lau eskutara sortutako kontzertu bat izango



■ ■ *Kode irekiko elkarrizketa da 'Ante', Galante eta bion elkarrenganako miresmenetik sortutakoa* ■ ■

dela, genero jakin bati lotua beharrean, mutazioei emana. 'Ante' hitza duten gaztelerazko adjektiboan inguruan esperimentatuko dugu zuzenean. Beraz, kode irekiko elkarrizketa bat izango da, Galante eta bion elkarrenganako miresmenetik sortutakoa.

## Dinamoa egindako egonaldi batek eman du zuek biok elkarrekin ikusteko bidea. Zer ekarpen egiten diote halako espazioek kulturari?

Itzela. Sormen gune zabala eta irekia da Dinamoa, Kulturaz Azpeitiko Kultur Kooperatibak kudeatzen duena. Esan dezagun sormen diziplina eta adierazpen guztiei zabalik dagoen laborategia dela, kultur mugimendua berritzeko sortu zutena eta betetzen duena bere eginkizun hori. Irudia, hitza, gorputza eta soinuaren eremuek osatzen dute Dinamoa eta guk soinuarenean egin genuen egonaldia. Sormenari ematen diote garrantzia eta oso espazio zainduak dituzte han. Esan dezakegu entsegu lokal tipokoak direla, baina oso ondo prestatutakoak. Sortzaileoi erraztasun guztiak ematen dizkigute Dinamoa, baliabideak, denbora eta arreta, eta eskatzen digutena da trukean gero zerbait ematea. Guk kontzertua emango dugu trukean, domekan ■



**Izaskun Uriguen Aranburu**  
*"Etxegiña"*

2025eko urtarrilaren 23an hil zen, 81 urte zituela.

**Eskerrik asko,  
emandako ezagutza eta maitasun guztiagatik.**

Etxekoak




**Jon Esnaola San Sebastian**

2025eko urtarrilaren 28an hil zen, 57 urte zituela.

**Ez zaitugu ahaztuko.**

Zure kuadrilla



IV. URTEURRENA

**Enrique Galan Jusue**

2021eko urtarrilaren 29an hil zen.

**Beti gure bihotzetan.**

Lagunak eta senideak



**Beñat Gutierrez Arrieta**

2025eko urtarrilaren 22an hil zen, 38 urte zituela.

**Zurekin gaude,  
gurekin zaude.**

Zure familia



## 'Sólo hasta mañana' antzezlanaren taularatuko du Erre Produkzioak taldeak Elgoibarren, hilaren 7an

Erre produkzioak taldearen obra da *Sólo hasta mañana*, David Cañak idatzi eta Gorka Minguezek zuzendutakoa, eta otsailaren 7an (barikua), Elgoibarko Herriko Antzokian emango dute (19:00). Harreman irekiei eta sexualitatea ulertzeko modu berriei buruzko antzezlanaren da, 14 urtez gorakoei zuzendutakoa. Oholtzan lau aktore arituko dira, nerabe askok bereziki *Goazen!* telesailetik ezagunak izango dituzten Lorea Intxausti, Nerea Elizalde eta Mikele Arizkorreta, eta Albar Cirarda, eta harremana ulertzeko moduan izaten diren aldaketen inguruko gogoeta eginaraziko dute, ikuspegi komiko batetik, baina beti ere gaia "sakontasunez" landuz, ikuspegi emozionaletik.

Honela dio sinopsiak: Aitziberrek lau lagunentzako bidaia irabazi du Karibeko resort batera, supermerkatu bateko zozketan. Gonbidatuak hauek dira: Olatz, bere bikotekidea; Ilargi, Aitziber eta Olatzen laguna; eta, azkenik, Ekaitz,



Ilargiren laguna, azken orduan gonbidatuko dutena, mutil-laguna desleiala izan zaiola jakin ondoren.

Sarrerak Herriko Antzokiaren webgunean eskuratu daitezke ([herrikoantzokia.eus](http://herrikoantzokia.eus)), sei euroan (Gazte-txartelarekin: 3 euro)

### Inauterietako zapaturako, playback lehiaketa antolatu du Arnok Mendaron



Azken urteotako tradizioari jarraituz, playback lehiaketa antolatu du Mendaroko Arno guraso elkarteak martxoaren 1erako, inauterietako zapaturako, eta otsailaren 25a arteko epea jarri dute izena emateko. Izena emateko mezu bat bidali behar da [arnoekintzak@gmail.com](mailto:arnoekintzak@gmail.com) helbidera ondorengo informazioa zehaztuta: taldearen izena, partaide kopurua, adin-tartea, taldeko norbaiten kontaktua eta abestia bera MP3 formatoan.

### 'Aulki hutsak' dokumentala proiektatuko dute Mendaron otsailaren 13an



Iñaki Peña medikuak zuzendutako *Aulki hutsak* dokumentala proiektatuko du Udalak Mendaron otsailaren 13an, 18:00etan, udalbatzan. Heriotza eta heriotzaren ondorengoa aztertu du Peñak dokumentalean, adituen eta hildakoen senitartekoen ikuspegitik, eta joandakoaren ausentziari aurre egiteko eta dolu prozesua ahalik eta modu onenean egiteko laguntza eskaintzen du modu horretan. Dokumentala euskaraz da eta 52 minutuko iraupena du.

## 'La musaraña que robó una montaña' liburua idatzi eta ilustratu du Iban Barrenetxeak

**P**aperezko koroa bat eta erresuma oso bat kolokan jartzeko gai zen satitsu bat (gaztelarazko, *musaraña*) zeuzkan errege zeken baten inguruko ipuina da Iban Barrenetxeak (Elgoibar, 1973) idatzi eta ilustratu duen azkena: *La musaraña que robó una montaña*. Iazko urrian argitaratu zuen eta Elgoibarko Gotzon Garate Udal Liburutegian irakurzaleen eskura jarri dute.

Idazten ari zen beste ipuin batean topatu zuen Barrenetxeak azken honetarako gaia edo heldulekua. Liburu hartako pertsonaia neskato irakurzale bat zen eta irakurtzen ari zen liburuen zerrenda osatu zuen Barrenetxeak, kontakizunetarako. *La musaraña que robó una montaña* jarri zion izenburua liburu haietako bati, eta absurdo horri zentzua nola eman pentsatzen hasi zen gero, beste ipuin baterako materiala sortzen. Ahoz gora irakurria izan zedin idatzi zuen liburua, eta estetika oso zaindua du, bai darabilen hizkuntzan, bai eta ilustrazioetan ere. "Ez nuen



nahi dena nik esaterik. Eta beraz, saiatu naiz erregea zekena zela esan orde, zekentasun hori erakusten, hitza bera aipatu gabe. Erregeak berak egiten du goizero koroa, bezperako egunkariarekin, eta bezperako egunkari horretan bildutako sardina errea gosaltzen du, bezperako ogi gogortuan sartuta". Liburuko ilustrazioak ere bereak ditu, nahiz aitortua duen hasieran lan hori beste ilustratzaile bati ematea ere pasatu zitzaiola burutik. Ohituak gaituenetik, baina, ezberdinak dira liburu honetako ilustrazioak.

### Salgai daude Pirritx eta Porrotxen azken ikuskizunerako sarrerak



Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek *Ostirala iritsi da!* azken ikuskizuna Elgoibarren ikusteko aukera izango da otsailaren 14an. Bi emanaldi izango dira, Herriko Antzokian, 17:00etan bata, eta 19:00etan bestea, eta sarrerak salgai daude dagoeneko Herriko Antzokiaren webgunean. Txapas irakaslearekin batera ospatuko dute azken laneguna pailazoek.

### Salgai daude Reinier Elizalde eta Marina Lledok Mendaron emango duten kontzerturako sarrerak



Reinier Elizalde eta Marina Lledok *Voces encontradas* kontzertua emango dute Mendaroko San Agustin kulturgunean otsailaren 14an, 20:30ean. Sarrerak Uztargi tabernan jarriko dituzte aurrez salgai. Musika eskaintza sustatzeko ekimenaren baitan antolatu dute kontzertua Uztargi tabernak eta Galle-tiak gozotegikoek, Gara-rockekoek laguntzarekin.

## Lehia eta erronkak uztartuta, igerian gozatu dute neska-mutilek



**S**an Anton Txapelketa antolatu zuen zapatuan estreinako Elgoibar Igeriketa Taldeak, eta dozenaka ume zein helduk hartu zuten parte. Ikeriketa Eskolakoen erakustaldian 50 neska-mutil inguru aritu ziren, eta master mailako igerilari-entzako probetan 28 igerilari izan ziren, bertokoekin batera Bergara eta Azkoititik etorritakoak. Hamabi

proba prestatu zituzten antolatzaileek, horietako hamar bakarka egitekoak eta erreleboka egitekoak beste biak. Txapelketa honekin, Eguberrietan antolatu zuten igeriketa erakustaldia berreskuratu du Elgoibar Igeriketa Taldeak, baina aurrerantzean urtarrean egingo dute. Pozik daude lehenengoak eman duenarekin. (👊 Joserra Cabrera)

### Herri-kirolen jardunaldian hartu dute parte Eskola Kiroleko haurrek



Eskola Kirolean parte hartzen ari diren Elgoibarko haurrek herri-kiroletan aritzeko aukera eduki zuten zapatuan. Kalegoen plazan egitekoak ziren arren, eguraldi haizetsu eta euritsua egin zuen eta IMH kiroldegian egin behar izan

zuten herri-kirolei eskainitako jardunaldia. Hainbat herri-kirol probatzeko aukera izan zuten gaztetxoek, besteak beste, lokots bilketa, txinga eramatea, zaku lasterketa, giza-probak eta sokatira.

**LAGUNAK**  
colchonería textil hogar  
San Roke kalea, 20  
Elgoibar

**%30 EKO DESKONTUA**  
**NEGUKO OHE-ARROPETAN**



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

## Mayi Mujika izan da azkarrena Kalamua-Barinaga jaitsieran, laugarrenkoz

Elgoibarren moduan, Markina-Xemeingo Barinaga auzoko auzotarrek ere ospatu zituzten San Anton jaiak, eta Kalamua-Barinaga jaitsiera izan zen Barinagako Jai Batzordeko kideek antolatutako ekitaldietako bat. Lau urteko etenaldiaren ostean berreskuratu dute mendi lasterketa berezi hau, dena goitik behera egiten baita, Kalamuako tontorretik hasi eta Barinaga auzoko frontoira arte (3,7 kilometro). Aurtengoan 35 saltarik hartu zuten parte eta bata bestearengandik 30 segundotara irten ziren, banakako lehian. Emakumezkoetan Mayi Mujika izan zen azkarrena, 14 minutu eta 24 segundoko denborarekin. Mujikak lau alditan hartu du parte eta laurak irabazi ditu. CATT Morkaiko trail taldeko bost kidek hartu zuten parte proban, eta horiek ere gustura daude. "Lasterketa txukuna egin genuen eta goian laga genuen taldearen izena, lehen hamabost postuen barruan sailkatu baikinen taldekideok, denbora onak eginda gainera", azaldu du Juanan Martinek.



Lea Artibaioko Hitzza

Julen Garaiburu berastegiarrak irabazi zuen gizonetzkoetan (11:27).



### Hazten jarraitzen du trail zaleen familiak

CATT Morkaiko trail taldeko kideek batzar orokorra egin zuten barikuan, eta taldeak hazten jarraitzen duela laga zuen agerian bileraren amaieran Aita Agirre Kulturguneko harmailetan atera zuten talde argazkiak [falta dira batzuk argazkian]. Aurten 11 lagun berri batu zaizkie taldera eta 65 dira orain (Hirurogei gizon eta bost emakume). "Familiak hazten jarraitzen du eta elkarrekin ikasten jarraitzen dugu", esan zuten. Aurten formazioan eragiteko asmoa dutela aurreratu zuten, herritarrentzat irekiak izango diren ikastaroen bidez. "Jendea animatu nahi dugu gurekin mendiaz goatzera, eta gure helburua gazteenei kirol honen baloreak irakastea izango da". Emakumeen parte-hartzea ere sustatu nahi dute, eta EMF Kopan lehiatzeko taldea ere sortuko dute talde barruan. Babesa ematen dieten laguntzaileei eta babesleei aitor-tza ere egin diete, besteak beste: Elgoibarko Udala, Rural Kutxa, Nordplastic 5.2, Kima, Lizagasar, Morkaiko M.E. eta Casa Astigarraga.

## Euskal Liga jokatu du Urkundek



**E**uskal Ligara igotzeko kanporaketak jokatu zituzten kadete mutilen mailako zortzi taldek asteburuan, lau taldeko bi multzotan banatuta. Zumarragako Ispilla kiroldegian lehiatu ziren lau talde, horien artean Sanloko Urkunde. Barikuan Muskiz Eskubaloien (Bizkaiko bigarren sailkatua) aurka jokatu zuten elgoibartarrek, eta 32-38 galdu zuten. Zapatuan, aldiz, Mek Eibar Eskubaloia A (Euskal Ligako zazpigarren sailkatua) izan zuten aurkari eta 32-29 irabazi zieten Sanlokoek auzokoei. Azken partidari, etxeko taldearen aurka jokatu zuten Urkundek, Urola EK RSA taldearen aurka. Eta Gipuzkoako txapelketa irabazi berri duten

zumarragarrek irabazi zuten partida, 37-34ko emaitzarekin. Lehen postuan Muskiz sailkatu zen, bigarrenen Urola, hirugarrenean Elgoibar eta laugarrenean Eibar. Lehen hirurak Euskal Ligan arituko dira, denboraldia amaitu arte. Lehen sailkatuek Estatuko txapelketa jokatu dute.

Euskal Ligan diharduen jubenil mailako Cimde Elgoibar taldeak, berriz, maila ez galtzeko promozio fasea jokatu du asteburuan, Bergarako Labegaraieta kiroldegian. Elgoibartarrek Ereintza, Ermuko Errotaberri eta Bergara izango dituzte aurkari eta lehen hiruren artean sailkatu beharko dute Euskal Ligan jarraitzeko.

---

### Jose Ramon Iriarte hil da, areto futbolaren sustatzaile handienetarikoa



Debabarrenean areto futbola sustatu eta goi mailara eraman zuen Jose Ramon Iriarte hil zen martitzenean, 66 urterekin, gaitotasun baten ondorioz. Futbola eta bereziki areto futbolaren alde lan handia egin zuen Iriartek, arduradun postuetatik. 1989an sortu zuten Debabarrena Aretu Futbol kluba, C.D. San Pedro izenarekin. Iriarte hasieratik egon zen taldean, eta klubeko presidente karguan aritu zen makina bat urtean. Eskualdeko eta Gipuzkoako talde erreferentea izan zen hainbat urtean eta Concepto Egile izenarekin Bigarren Nazional B Mailara igo ziren 2010-2011 denboraldian. Gero, Bigarren Mailara igotzea lortu zuten 2013an, Espainiako bigarren maila gorenera, baina uko egin behar izan zioten, diru kontuegatik. Hain zuzen, arazo ekonomikoetatik desagertu zen taldea 2017an.



## Mikel Agirrebeña 13. postuan sailkatu da Euskadirekin errelebo mistoko Espainiako kros txapelketan

**E**spainiako Kros Txapelketa jokatu zuten domekan Getafen (Madril, Espainia), eta Mikel Agirrebeña Iturbe elgoibartarra Euskadiko selekzioarekin lehiatu zen errelebo mistoko proban. Adrian Pajares, Izaro Perurena eta Uxue Mardaras izan zituen taldekide eta 13. postuan sailkatu ziren, 28:16ko denborarekin. Aragoiko taldeak irabazi zuen proba (25:45), Gaztela eta Leoiko selekzioari segundo bakarreko aldeaz irabazita.

Agirrebeña pozik dago euskal selekzioa ordezkatzeko izan duen aukerarekin, "amets bat" bete duelako. Getafen zirkuitu nahiko gogorra topatu zutela azaldu du, baina lasterketa polita izan zela. "Nahiko gorabeheratsua zen zirkuituaren lehen zatia, eta lauagoa bigarrena; baina, zuhaitz enborrak jarri zituzten proba zailtzeko. Lokatz pixka bat ere bazegoen". Lehen postuetatik nahiko luketena baino urrunago ibili ziren arren, "maila handiagoko lasterkariak" eraman dituztelako beste selekzioek. Errelebo mistoen probak berri xamarak dira, Espainiako txapelketa adibidez hirugarrengez jokatu dute. Agirrebeñak, baina, badu eskarmentua era



honetako lasterketetan, Donostiako Super Amara BAT taldearekin hartu baitzuen parte klubaren arteko Espainiako kros txapelketan, 2022an eta 2023an. "Jokatzeo proba politak dira, eta ondo egokitzen dira nire ezaugarrietara. Denbora eta distantzia labur batean, bi kilometroren bueltan egoten dira, dena eman behar da, hustu arte. Alabaina, komeni da indarrak gordetzea ere, azkarregi irtetea erraza baita. Gainera, ez da ahaztu behar kros lasterketetako ibilbideek asko zailtzen dutela norbere indarraren kudeaketa hori, are gehiago lokatza dagoenetan. Hortaz, azkartasuna eta indarra uzartu behar dira errelebo mistoen lasterketetan". Pistako atleta den arren, Mintxeta taldeko kideak krosa du atletismo-modalitate kutunena. Asfaltoan ere ibiltzen da, bost eta hamar kilometroko probetan bereziki.

## Osasun gida

**aldaz**  
hortz klinikak  
RPS233/13  
**943 366 377**  
San Bartolome, 22  
20870 Elgoibar

RPS 271/12  
**ainhoa**  
fisioterapia  
Jausoro plaza, 6 behe  
Elgoibar  
**943 531 953**  
**669 565 745**

RPS 183/12  
**Uzuri**  
optika audio  
Elgoibar  
**943 740 359**  
Deba  
**943 192 192**

**fisio&más**  
Fisioterapia aurreratua eta  
Kirol Berregokitzea  
Trenbide kalea, 13  
**943 740 191 / 667 953 698**  
www.fisio-mas.com  
RPS 177/12

**leku edero**  
hortz klinikak  
RPS 171/12  
Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar  
**943 530 053**

**NATUR HOUSE**  
**Ainara Iruondo Ansola**  
GIZA ELIKADURAN ETA  
DIETETIKAN DIPLOMATUA  
RPS 203/16  
Toribio Etrebarria, 22  
Eibar  
**677 551 850**

**LANA****Eskaintzak**

Elgoibarko ile-apaindegi baterako langilea behar da. Jar-dun erdi edo osorako. Berehala hasteko. **634 261 485**

**Eskaerak**

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, etxean nahiz ospitalean. Soziosanitario titulua daukat eta urte askotako esperientzia.

**660 511 781 / 943 742 330**

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, etxeko langile moduan zein orduka. Urteetako esperientzia. Garbiketa lanak ere egiten ditut. **602 169 509**

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, etxeko langile moduan zein orduka. Urteetako esperientzia. Garbiketa lanak ere egiten ditut. **641 12 17 95**

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, etxeko langile moduan edo orduka. Urteetako esperientzia. Etxeetan garbiketa lanak egiteko ere prest nengo. **641 912 759**

Lanerako prest nago. Margolari lanetan eta adinekoak zaintzen urte askotako esperientzia daukat. Titulu soziosanitarioa dut. **603 727 067**

Adinekoak zaintzeko, baita garbiketa lanetarako ere. Esperientzia. 15:00etatik aurrera edo gauzez egingo nuke lan. **642 249 584**

Adinekoak zainduko nituzke. Oporretan eta gauzez ere bai. Orduka edo etxeko langile moduan jarduteko prest. Esperientzia. **642 852 854**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Titulu soziosanitarioa eta esperientzia handia ditut. **642 852 854**

Langile arduratsua adinekoak zaintzeko prest. Esperientzia-duna. Orduka edo etxeko langile moduan. **632 708 954**

Edozertan egingo nuke lan. Berehala lanean hasteko prest nago. **643 097 599**

**BESTELAKOAK**

Oraiko pub zeneko baso-azpiko bat nahiko nuke. **688 624 326**

Merkatu txikiko iragarkiari bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiari ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta).  
Autoak saltzea: 18€ .  
Bestelakoak: 10€.

Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:  
Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta).  
Autoak saltzea: 15€.  
Bestelakoak: 8€.

Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Financas  
Euzkoako Finantza Administrazioaren Erakunde Komunitarioa



**ROSA M<sup>a</sup>  
PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

**660 969 679**

**rosapf@telefonica.net**

**Gure komunitateko jabe batek etxe bat baino gehiago ditu komunitatean, eta azken bi urteetan ez ditu ordaindu etxe horietako bati dagozkion kuotak. Jakin nahi nuke arrazoari horrengatik eskubideak murriztuta dituen.**


Batzarra hasteko unean komunitatean ordura arte sortutako zorren ordainketan egunean ez dauden jabeek, zor horiek judizialki aurkaratu ez badituzte edo zordundutako zenbatekoa epailearen edo notarioaren zainpean utzi ez badute, eztabaidetan parte hartu ahal izango dute, baina ez dute boto-eskubiderik izango. Ildo horretan, jurisprudentzia kontsolidatua da, eta adierazten du jabe bakoitzari boto bat dagokiola, nahiz eta etxebizitza bakarraren edo batzuen titularrak izan. Hau da, komunitateko kuotak ez ordaintzeari dagokionez, boto-eskubidea izateko aipatutako baldintza guztiak bete behar dira. Hala nola, batzarra hasteko unean dagoen egoera egiaztatzea, jabeek komunitatearekin zor guztiak ordainduta izatea, eta, azkenik, zor horiek judizialki aurkaratu ez badituzte edo zordundutako zenbatekoa epailearen edo notarioaren zainpean utzi ez badute.


**Ondorioa: boto eskubidea ukatzea orokorra da, zigor gisa aplikatzen baitzaie batzarra hasteko unean komunitateak aurrez izandako zor guztien ordainketa egunean ez duten jabeek. Beraz, komunitateko kuota guztiak ordaintzen ez dituen bitartean, boto eskubiderik ez du izango.**




**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



7 urte handi, San Blas txiki. Zorionak, **Liber!** Ilargiraino eta buelta maite zaitugu. Aiak eta etxeko guztiok.




Zorionak, **Gilen!** 3 urte ingurukoak barre bihurri horrekin maite-mintzen! Belarri tirakada bat eta muxu potolo bat etxekoen partez.



Zorionak, **Josu!** 10 urte pasatu dira konturatu gabe!. Jarraitu horren mutil alaja eta jatorra izaten. Ikaragarri maite zaitugu.



otsailaren 5ean 3 urte egingo dituzulako, txapeldun! Muxu erraldoia familiakoen partez, bitxito.



Zorionak, **txapeldun!** 12 urte handi! Muxu handi bat maite zaituztenen partez. Ondo pasa zure egunean.



Zorionak, **Nare,** gaur urtebko bat bete duzulako. Segi horren alai! Muxu potolo bat, etxekoen partez.



Zorionak, **printzesa!** 6 urte handi igandean! Muxu potolo-potolo bat guztien partez!!

**Alfonbrak garbitzeko zerbitzu berria DEITU! 660 912 542**

Olaso 15, 74. pabiloia

 [elgogarbiketak](https://www.instagram.com/elgogarbiketak)

\*Alfonbrak lokalera eraman behar dira. Kasu berezietan bakarrik jasoko ditugu etxean.

**TARIFAK:**

**TXIKIA:**  
90 X 60 zm arte: **20€**

**ERTAINA:**  
150 X 100 zm arte: **40€**

**HANDIA:**  
200 X 150 zm: **60€**

**EHUNAK GARBITZEKO GURE ZERBITZUAK:**

AUTOAK    SOFAK    KOLTXOIAK    ESERILEKU TAPIZATUAK





**BARRENEK kontu berria dauka Mastodon.eus-en**

Deskargatu aplikazioa eta jarraitu gure kontua: [mastodon.eus/@barren@tkm.eus](https://mastodon.eus/@barren@tkm.eus)



**Zer da Mastodon.eus?**

**Mastodon.eus euskara eta euskal kulturaren komunitatearentzat sortutako Mastodon instantzia bat da. 2018an hauek sortua:**

Azkue Fundazioa / Dinahosting  
iametza / Laborategia.eus  
PuntuEUS / Talaios Koop




**mastodon .eus**

**EXPRESS ESKAINTZAK!**

**COMBI GRUNDIG GKNP 66831 XP**

**599 €**

- No Frost - Duo Cooling
- 185 zm-ko altuera
- Ukipen pantaila
- AeroFresh teknologia
- Vitamin Zone teknologia
- Aztarnen aurkako altzairu herdoilgaitz



**MILARBIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Denak prezioak. Produktuak agortu arte.

## 31 BARIKUA

**18:30** Erakusketa: Santa Eskeko Etxegina taldearen 100. urteurrena. Hilaren 9ra arte egongo da ikusgai, Kultur Etxean.

**18:30** Kafe tertulia, 7. arteari buruz. Lilan, Loredi Salegirekin.

**20:00** Hileko azken barikuko elkarretaratzea, 'Behin betiko etxera' lemapean. Sarek deituta, Kalegoen plazan.

**22:00** Kontzertua: Amorante eta Adriano Galante. Mendaroko San Agustin kulturgunean.

## 1 ZAPATUA

**09:00** Etxeginakoen Santa Eskea. Bolatokian hasita, herriko kale eta auzoak koplaturatu dituzte.

## 2 DOMEKA

**10:00** Santa eskea, familian. Atxuxiamaiak antolatuta, Azkue auzoko baserriak koplaturatu dituzte, familian. Azkueko ermitatik abiatuko dira.

**11:00** Kandelaria Egune-ko meza berezia. Kandelak bedeinkaturatu dituzte, San Bartolome parrokian.

**12:30** Kandelaria eguneko ospakizuna, Mendaron, Gargartzako elizan.

## 3 ASTELEHENA

**09:00** San Blas Egune-ko meza. San Blas opilak bedeinkaturatu dituzte. Maalako elizan.

**10:00** San Blas opilak bedeinkaturatu dituzte, baina ez da mezarik egongo. San Bartolome parrokian.

**12:00** San Blas opilak bedeinkaturatu dituzte Mendaroko Trinitate basilizan.

## 4 MARTITZENA

**9:00** Elgoibar Ikastolako santa eskea. Ikastolan hasita, herriko kale eta auzoak koplaturatu dituzte, mailaka banaturatu. Euria egiten badu, ikastetxean egingo dute ekitaldia.

**14:30** Elgoibarko Izarrakoen santa eskea. Kalegoen plazan batuko dira, eta Elgoibarko baserri auzoak koplaturatu dituzte.

**16:30** Lehen sorospen ikastaroa. Jubilatuen Biltokiak, Gurutze Gorriak eta Ongizate Sailak antolatuta. Jubilatuen Biltokian.

## 5 EGUAZTENA

**16:30** Lehen sorospen ikastaroa. Jubilatuen Biltokiak, Gurutze Gorriak eta Ongizate Sailak antolatuta. Jubilatuen Biltokian.

## 7 BARIKUA

**19:00** Antzerkia: 'Sólo hasta mañana'. Herriko Antzokian




### *Luis Mari Ruiz de Gauna Ibañez de Garayo*

2025eko urtarrilaren 23an hil zen, 94 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Gure ondotik joan zara,  
baina betiko izango zaitugu  
gure bihotzetan.***

Etxeakoak



**Zinea** Herriko Antzokian



**'Al otro barrio'**

31 barikua: 19:00  
 1 zapatua: 19:00 / 22:15  
 2 domeka: 19:00  
 3 astelehena: 21:00

**'Klara eta hazi magikoaren misterioa'**

2 igandea: 16:30

**'Dogman'** (Ongarri zinekluba)

5 eguaztena: 21:00



**2025eko botika ordutegiak:**

09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00

Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

**URTARRILA**

31 BARIKUA

**Egunez**

Arriola

**OTSAILA**

1 ZAPATUA

■ Fernandez

■ Barrenetxea

2 DOMEKA

Fernandez

3 ASTELEHENA

Yudego

4 MARTITZENA

■ Oruesagasti

5 EGUAZTENA

Barrenetxea

6 EGUENA

■ Soto

7 BARIKUA

Garitaonandia

**2025 urte guztian, gauzez:**

Mikel Lekunberri Alberdi. Isasi, 31 (Eibar)

943 204 230

■ Fernandez:  
 Herriko  
 Eparantza, 4  
 Garagartza  
 (Mendaro)  
 943 756 142

■ Soto  
 Rekalde, 1  
 (Soraluze)  
 943 751 638

■ Oruesagasti:  
 Kalebarren, 9  
 (Soraluze)  
 943 751 384

**I. URTEURRENA**

**Jesus Mari Etxaniz Ansola**

*"Sukusu"*

2024ko otsailaren 2an hil zen, 76 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, otsailaren 2an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.



## Iritsi da makila kolpeka lurra esnatzeko sasoia

Oles egiteko egunak izango dira bihartik datorren zapatara artekoak Elgoibarren eta Mendaron. Natura esnatzeko makila kolpean arituko dira santa eskekoak, eskean eta kantuan.

### Etxegina taldekoen santa eskea, bihar \_\_\_\_\_

Etxegina taldekoak izango dira eskera irteten lehenengoak, Elgoibarren. 09:00etan Bolatokian elkartzeko deia egin dute biharko. Berezia izango da aurtengoa talde honentzako, mendeurrena ospatuko dutelako, zenbaki honetako erreportaje nagusian irakurriko duzuen bezala.

### Elgoibarko Izarrakoen santa eskeak \_\_\_\_\_

Domekan irtengo dira santa eskera Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaiaka taldekoak. Iaz moduan, Azkue auzoko baserriak koplaturiko dituzte. Familiei eta umei egokitutako ekimena da, baina hala ere, nahi duen orok parte hartu ahal izango du. Azkue auzoko ermita parean batuko dira, 10:00etan, eta 14:30ak aldera arte arituko dira kantuan, baserriz baserri. Eneko Beretxinaga eta Amaia Iturriotz izango dituzte koplariak eta Lurdes eta Aitor Alkorta neba-arrebak trikitilariak. Lizagarren mokadua egingo dutela ere aurreratu dute.

Elgoibarko Izarraren beste talde bat otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan, irtengo da kantura eta eskera. 1994an berreskuratu zuten baserriz baserri kantuan ibiltzeko ohitura eta 31. urtea dute aurten. 14:30ean abiatuko dira Kalegoen plazatik baserri auzoetara, bi taldetan banatuta, eta 21:30ak aldera arte arituko dira zeregin horretan. Millan Telleria, Juan Jose Loidisaletxe, Bixente Gorostidi eta German Meabebasterretxea izango dira koplariak eta Oier Baltzola, Aitziber Larrañaga, Ekaitz Baskaran eta Arantxa Beristain trikitilariak. Koruetan parte hartzeko izena eman behar da, eta gaur da horretarako azken eguna. Izena emateko: telefonoz deitu (943 741 626) edo mezua idatzi ([elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus)).

### Mendaroko santa eskea, otsailaren 8an \_\_\_\_\_

Zapatuz egingo dute santa eskea Mendaron, otsailaren 8an. 08:30ean elkartuko dira eskekoak



Herriko Enparantzan eta hiru taldetan banatuta koplaturiko dituzte herriko hiru auzoetako baserri eta kaleak. Bina koplari izango dituzte talde bakoitzeko: Aitor Salegi eta Amaia Agirre Azpilgoetan, Unai Mendizabal eta Beñat Lizaso Mendarozabalen eta Iñigo Zubiaurre *Beitxi* eta Aitor Zubikarai, Garagartzan, eta honako hauek osatuko dute trikitilari taldea: Igor Rey, Jon Larrañaga, Amaia Sukia, Iñigo Loiola, Garazi Ulazia, Elene Goikoetxea, Jare Agea, Idurre Arriola, Leandro Esnaola eta Janire Elordi.

### Ikastetxeetako santa eskeak \_\_\_\_\_

Otsailaren 4an irtengo dira Elgoibar Ikastolakoak eta Mendaroko eskolakoak santa eskera. Elgoibar Ikastolako komunitate osoa 09:10ean elkartuko da ikastetxe atarian eta ondoren taldetan banatuko dira herrian zehar kantuan aritzeko: LH1 - DBH4 (Gabriel Krutzelaegi - Artetxe - Toletxe - Uparitzaga), LH2 - DBH3 (Urazandi, Jausoro, Kalegoen plaza eta Kultur etxea), LH 3-4 - DBH2 (San Roke - Juan Mugertza - Antzarsoro - Santa Ana) eta LH5-6 - DBH1 (Basarte-Erretsundi-Arregitorre). Euria egingo balu, ikastolara mugatuko lukete ekintza hau.

Herri Eskolakoak eta Ikastolakoak, bestalde, bihar Etxegina taldekoen santa eskera batuko dira.

Mendaron ere kalera irtengo dira eskola-umeak kantura otsailaren 4an. Ohi moduan, ikastetxeko nagusienek, LH5 eta LH6koek, hasiko dute kantu-erronda, ospitalean, 10:00etan, eta bidean baten joango zaizkie gazteagoak. 11:00etan eguneko zentroan elkartuko dira LH3 eta LH4koekin, eta elkarrekin koplaturiko dute Azpilgoeta auzoa eta Haurreskola. 11:40ak aldera LH1 eta LH2koekin elkartuko dira plazan, eta udaletxe aurrean egingo dute saioa, handik Mendarozabalgo plazara joateko gero. Hantxe bukatuko dute kantu-erronda, HH3tik gorako gainerako ikasleekin elkartuta.

**b**  
barren

Jarri ezazu zure publizitatea  
**BARREN** astekarian edo  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean

**943 743 704**  
**688 769 657**

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)  
Aita Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

Galdetu prezioak eta gustura erantzunago dizugu.

**MADU**, igarle sendatzailea

Bikote harremanak onbideratzen espezialista.  
Begizkoa kentzen dut.  
Sexu-ezintasuna sendatzen dut.  
Zorte ona erakartzen dut negozio berrietarako;  
bideak zabaltzen ditut.  
Emitza onak %100ean ziurtatuta.

Harremanetarako: 647 449 544



**Tchin Tchin**  
PROGRESIBOAK

**BIGARREN BETAURREKO  
PROGRESIBOAK 1€ GEHIAGO  
ORDAINDUTA\***

**%100eko  
EGOKITZE-BERMEA**

**MAITEMINDU ZAITEZ HAIEKIN EDO ITZULI ITZAZU!**

\*Eskaintza honek 2025/02/04tik 2025/03/30era arte balio du. Espainia eta Andorrako ALAIN AFFLELOU optika guztietan. Ikus itzazu baldintzak optikan bertan edo [afflelou.es](http://afflelou.es) webgunean.

**SAN BARTOLOME KALEA, 10  
ELGOIBAR · 943 74 37 34**

**ALAINAFFLELOU**

Eskatu hemen  
hitzordua  
[afflelou.es](http://afflelou.es)




Adam, Errenteria  
24/11/18 Donostia Ospitalea

**Gipuzkoa egunero  
sortzen da.**

Pertsonen ongizate integral handieneko  
lurraldea izatea da gure asmoa.

**GIPUZKOA**  
Ekin. Zaindu. Bizi.




# Antxustegi

Zure ametsak sukaldatzen!



[www.antxustegi.com](http://www.antxustegi.com)



Antxustegin behar duzun dena topatuko duzu. Ez eman buelta gehiagorik; zatoz eta ezagutu gure sukalde aukera zabala!



ZERAMKA  
ETA HARRIA



LURZORU  
LAMINATUA



MARGOZTUTAKO  
PARERA



BARUGELA



BURDINDEGIA



ERAKUNTZARAKO  
MATERIALAK



SUKALDEAK

Olaso Olasope, 5, industrialdea- 20870 Elgoibar - 943 743 344 / 943 740 692